



EUOPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtza
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

UNION EUROPEA
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

Lanbidek eta Europako Gizarte Funtzak, Gazte Enpleguko 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan gazte langabeak kontratatzeko deialdi hau finantziatuko dute

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPENA
Turismo teknikaria	Arrasateko turismo planaren lan ildoak garatzea eta Lezetxikiko erakusketaren aurkezpena	% 100	12 hil.

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

▪ Baldintza orokorrak

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte bai eskaera egiteko unean bai kontratua egiterakoan:

- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea
- Enplegu-eskatzailerak izan behar dute, alta egoeran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, eta bete behar duten **lanpostuari dagokion hezkuntza maila** izan behar dute.
- Ezingo dira kontratatu 2019 edo 2020ko ekitaldietako deialdietan kontratatuak izan diren pertsonak.
- Gazteen Bermerako Sistemari inskribatuta egon behar dute.
- Lanbidek Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan gazteak kontratatzeko 2021. urterako diru-laguntzen deialdiko baldintzak betetzea (EHAA 2021/06/29).
- Lehentasun-ordena hau beteko da hautaketa-prozesuan:
 - DSBE prestazioaren titularrak edo onuradunak
 - 30 urteko adinetik gertuen dauden pertsonak
 - Baldintzak betetzen dituzten gainerako gazteak

▪ Berriazko baldintzak

- Titulua: Lizentziatura, unibertsitate diplomatura, gradua edo baliokidea.
- Ikasketa espezifikoak edo konplementarioak (ikastaro, master, gradu-ondokoa) izatea turismo arloan edo/eta turismo teknikari lanetan 6 hilabeteko lan eskarmentua.
- Euskara: 3 HE edo baliokidea egiaztatzea (agiriz edo proba eginez).
- Ingelesa: B2 edo baliokidea egiaztatzea (agiriz).



EUOPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtza
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

UNION EUROPEA
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko teknikari bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
Tel.: 943 252000
baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

▪ Probak

- *Praktikoa*: 0-35 puntura baloratuko da eta gutxienez 17,5 atera behar da aurrera egiteko.
- *Elkarrizketa*: 0tik 15 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira .